



ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOEN OSASUN-ALARMAN APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

Data: 2020ko urriaren 27a

SARRERA

Urriaren 26an, lehendakariaren 36/2020 Dekretua argitaratu zen, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurri espezifikokoak zehazten dituen. Honako hauek dira dekretuan jasotako neurri nabarmenak:

Bat – Pertsonen gaueko zirkulazio-askatasuna mugatzea (23:00etatik 06:00etara).

1. Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzen duen ordutegia 23:00etan hasiko da eta 06:00etan amaituko da.

2. Aurreko puntuan ezarritako ordutegi-tartean, pertsonak honako jardura hauek egiteko bakarrik erabili ahal izango dituzte erabilera publikoko bide edo espazioak:

- Sendagaiak, osasun-produktuak eta premia biziko beste ondasun batzuk erostea.
- Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetara joatea.
- Albaitaritzako arreta-zentroetara joatea urgentziako arrazoiengatik.
- Lan-, lanbide-, enpresa-, erakunde- edo lege-betebeharrak betetzea.
- Ohiko bizilekura itzultzea, atal honetan aurreikusitako jardura batzuk egin ondoren.
- Adinekoei, adingabeei, mendekotasun-egoeran daudenei, desgaitasuna duten pertsonari edo bereziki ahulak diren pertsonari laguntzea eta hauek zaintzea.
- Ezinbesteko kausagatik edo premia-egoeragatik.
- Antzeko beste edozein jardura, behar bezala egiaztatuta badago.
- Aurreko paragrafoetan aurreikusitako jarduerak egiteko beharrezkoa denean gasolina-zerbitzuguneetan erregaia hartzea.

Bi - Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eta norberak bizilekua duen udal-mugarteetan pertsonen sarrera eta irteera mugatzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eta norberak bizilekua duen udalerrian pertsonak sartzea eta irtetea mugatuta dagoela zehazten da.

2. Arrazoi hauetakoren batengatik egindako joan-etorriak baino ez dira baimenduko, betiere behar bezala justifikatuta badaude:

- Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetara joatea.
- Lan-, lanbide-, enpresa-, erakunde- edo lege-betebeharrak betetzea.
- Unibertsitateetara, ikastetxeetara eta hezkuntza-zentroetara joatea, haur-hezkuntzako eskolak barne.
- Ohiko bizilekura edo familia-bizilekura itzultzea.
- Adinekoei, adingabeei, mendekotasun-egoeran daudenei, desgaitasuna duten pertsonari edo bereziki ahulak diren pertsonari laguntzea eta hauek zaintzea.



- Mugakide diren lurraldeetako finantza- eta aseguru-erakundeetara edo gasolina-zerbitzuguneetara joatea.
- Organo publiko, judicial edo notarialetan egin beharreko premiazko betebeharrak betetzea.
- Baimenak eta dokumentazio ofiziala berritzea, bai eta beste administrazio-izapide atzeraezin batzuk egitea ere.
- Azterketa edo proba ofizial atzeraezinak egitea.
- Ezinbesteko kausagatik edo premia-egoeragatik.
- Antzeko beste edozein jarduera, behar bezala egiaztatuta badago.
- Aurreko zenbakietan ezarritakoaz gain, mugatu egiten da, halaber, bizilekua finkatuta duten udalerriko mugarte bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera, aurreko atalean aurreikusitako salbuespenekin, eta mugakide diren udalerrien arteko mugikortasuna baimentzeari kalterik egin gabe, jarduera sozioekonomiko eta kirol-jarduera indibidualak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko. Salbuetsita daude, halaber, eranskinaren 14.1 atalean baimendutako kirol-lehiaketetarako beharrezkoak diren lekualdatzeak.

Ez da inolako murrizketarik egongo Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den zirkulazioan.

Hiru - Pertsona-taldeak espazio publiko eta pribatuetan egoteko muga: gehienez 6 pertsona.

1. Pertsona taldeak gehienez seiakoak izango direla erabaki da erabilera publikoko guneetan, leku itxietan nahiz aire zabalean, bai eta erabilera pribatuko espazioetan ere. Salbuetsita egongo dira bizikideak badira; jendearentzat irekiak dauden bulego, instalazio eta establezimenduei dagokienez ezartzen diren neurri bereziak; edo adingabe eta mendekotasunen bat dutenentzat.

2. Artikulu honetan aurreikusitako mugaren barruan ez dira sartuko lan-, hezkuntza- eta erakunde-jarduerak, ezta araudi aplikagarrian berariazko neurriak ezartzen direnak ere.

Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan eta haren eranskinean ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko arau eta egintza guztiak, eta, bereziki, indargabetuta geratzen dira Osasun Sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko eta urriaren 22ko Aginduak, osasun publikoaren arloko prebentzio-neurri espezifikoak hartu zituztenak.

INTERPRETAZIOAK ETA APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

BIZILEKUA FINKATUTA DAGOEN UDALERRITIK KANPO JOAN-ETORRIEI BURUZKOAK.

Baimenduta al dago erosketak egiteko merkataritza-gune handi edo antzeko batera lekualdatzea?

Elikagaiak edo baimendutako beste produktu batzuk erosteko joan-etorriak, bizi den udalerriko edo udalerririk mugakideetako merkataritza-establezimenduetara egin behar dira.

Bizileku edo mugakide den herrian ematen ez diren zerbitzu eta horniduretarako, salbuespen gisa, bizileku den udalerritik hurbilago dagoen merkataritza-gune edo antzeko batera lekualdatzea baimenduko da.

Mugikortasunari dagokionez, zer da udalerririk mugakidea?

Bizileku-udalerraren ondoko udalerririk da, eta bertara zuzenean sartzen da mugakideak ez diren beste udalerririk batzuetatik igaro gabe.

Adinekoen egoitzetara joateko aukera dago?

Bai, Euskal Autonomia Erkidego barruan, baldin eta zentroak berak baimendutako bisitak badira.



Espetxeetara joateko aukera dago?

Bai, baldin eta Espetxe Agintaritzak emandako baimena badu.

EAetik kanpora joateko baimena emango da, helmugako erkidego autonomoak horretarako aukera ematen duenean.

Autoen tailerretara eta ibilgailuen kontzesionarioetara joateko aukera dago?

Bai, atzeraezinak eta nahitaezkoak badira eta bertan egin beharreko kudeaketak egiteko.

Baimenduta al dago erlijio- edo kultu-zerbitzuetara lekualdatzea?

Bai, salbuespen gisa bizi den udalerrian halakorik ez dagoenean eta beti gertuen dagoen lekura.

Baimenduta al dago udalerritik kanpo mugitzea halal saltoki eta harategietan erosi behar izateagatik?

Bai. Bizi den udalerriak zerbitzu hori ez badu, betiere aipatutako zerbitzua duen udalerririk hurbilenera egin daitezke joan-etorriak.

Pertsona bat jasotzera joan daiteke aireportura, geltokietara, etab.?

Bai, edozein senide bere bizilekura itzultzeko bakarrik.

Mendekotasuna duten senideak, desgaitasuna duten pertsonak edo bereziki ahulak diren pertsonak bisitatu daitezke?

Ez. Laguntza eta zaintza-lanak egitera bakarrik joan ahal izango da haien etxera.

Baratzeetan lan egiteko lekualdatu daiteke?

Bai, bizi diren udalerriko eta udalerririk mugakideetako baratzeetan.

Bigarren egoitzetara bidaiatu daiteke?

Ez, udalerririk mugakideetan badaude salbu.

Baimentzen al da arrazoi sindikalengatik, alderdi politikoaren, enpresa-elkarte eta antzekoen lanagatik lekualdatzea?

Bai, jarduera instituzionalizat hartzen baitira.

LEHENDAKARIAREN 36/2020 DEKRETUAREN ERANSKINAREN LABURPENA

Maskarak nahitaez erabili behar dira.

Nahitaez erabili behar dute maskara sei urtetik gorako pertsonak, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan daudenean, bai erabilera publikoko espazio itxietan daudenean edo jendearentzat irekita daudenean, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu ahal direnean.

Maskara erabiltzetik salbuetsita dauden pertsonen kasuan, izan desgaitasun-egoeragatik, mendekotasunagatik, gaixotasunagatik edo arnasteko zailtasunagatik, egoera hori dokumentatu ahal izango dute, dagokionaren arabera, desgaitasun- edo mendekotasun-maila egiaztatzen duen agiriaren bidez edo, bestela, medikuaren ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, pertsona horren edo tutorearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da.

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimendu eta zerbitzuetan, maskara erabiltzeko betebeharrak hori elikagaiak edo edariak hartzen diren unean bakarrik baztertzen da. Bestela, maskara erabili egin beharko da.

Maskara behar bezala erabili behar da; hau da, maskarak sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (kokotsa barne) estali behar du.

Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute betebeharrak hori betetzen dela.



Eska daitekeen higie-ne eta prebentzio-neurria.

Ezin izango da bide publikoan edo aire zabaleko guneetan erre, baldin eta ezin bada gutxienez 2 metroko pertsonarteko gutxieneko distantzia errespetatu. Muga hori tabakoa inhalatzeko beste edozein gailu erabiltzeko ere aplikatuko da, hala nola zigarro elektronikoak, "vapers" ak, ur-pipak, katximbak edo antzekoak.

Establezimenduak, instalazioak eta lokalak.

Establezimenduek, instalazioek eta lokalek jendaurrean jarri beharko dute gehieneko edukiera, langileak barne bilduko dituen, eta edukiera hori eta barnean pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen direla ziurtatu beharko dute. Horrela, edukiera zenbatzeko eta kontrolatzeko prozedurak ezarri beharko dituzte, edukiera hori inoiz ere gainditu ez dadin.

Beilatokiak eta ehorzketak.

Beilatokiak mota guztietako instalazioetan egin ahal izango dira, publiko zein pribatuetan, behar bezala gaituta, gehienez ere 30 pertsona aire zabaleko espazioetan eta 6 pertsona espazio itxietan, bizikideak izan edo ez. Bertaratutakoen kopurua txikiagoa bada, ezin izango da baimendutako edukieraren ehuneko 50 gainditu.

Hildakoaren ehorzketarako edo erretzeko agurrerako segizioan gehienez 30 pertsonak parte hartu ahal izango dute, betiere eremu irekian egiten bada. Ekitaldia leku itxian egiten bada, 10 pertsona izango dira gehienez, eta pertsonen arteko segurtasun-tarteari eutsiko zaio beti.

Gurtzarako lekuak.

Kultu-aretoetara joateak ezin izango du edukieraren ehuneko 50 gainditu, eta, nolahi ere, erabiltzaileen arteko 1,5 metroko distantzia bete beharko da. Gehieneko edukiera gurtzara bideratutako espazioko leku publikoan argitaratu beharko da.

Merkatuak.

Bide publikoan, aire zabalean jarduten duten merkatuen kasuan edo sedentarioa ez den salmentan, merkatu txiki gisa ezagutzen direnak, ezin izango dira ohiko edo baimendutako postuen ehuneko 50 baino gehiago izan; elkarren ondoko postuen artean gutxienez 1,5 metroko tartea egon beharko da, eta bezeroen joan-etorria mugatu beharko da, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eusten zaiola bermatzeko. Maskara nahitaez erabili beharko da, eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izango da.

Euskaltegiak, akademiak, autoeskolak, eskolak eta arautu gabeko prestakuntza-zentroak.

Euskaltegietan, akademiatan, autoeskoletan, eskoletan eta arautu gabeko prestakuntza-zentroetan, publiko zein pribatuetan, egiten den jarduera aurrez aurre eman ahal izango da, gehienez ere 25 pertsonarekin. Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-tartea mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

Ostalaritza, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

Barruan baimendutako gehieneko edukieraren ehuneko 50eko edukiera baimentzen da, eta 1,5 metroko distantzia fisikoa ziurtatu beharko da mahaien artean edo, hala badagokio, mahaien multzoen artean, barruan zein kanpoan. 1,5 metroko distantzia hori mahai desberdinetako hurbilen dauden pertsonen artean neurtu



beharko da. Gehienez ere 6 pertsona elkartu ahal izango dira, bai barrualdean, bai kanpoaldean, mahai bakoitzeko edo mahaien multzo bakoitzeko.

Kontsumoa mahaian eserita egingo da beti. Debeekatuta dago barran kontsumitzea. Nolanahi ere, bezeroen edo bezero-taldeen arteko 1,5 metroko distantzia fisikoak ziurtatu beharko da, eta eserita egon beharko da beti. Cocktailak eta buffetak egin daitezke, gehienez 6 pertsonako taldeetan.

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da beti, kontsumitzeko berariazko unean izan ezik.

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek eta zerbitzuek, terrazak barne, beranduenez 23:00etan itxi beharko dute, bezeroen irtenaraztea barne eta 23:00etatik aurrera zirkulazioa mugatu baino nahikoa lehenago. Lokala jendearentzat itxita egon beharko da eta ezingo da 06:00ak baino lehen berriro ireki. Neurri horiek asteko egun guztietan aplikatuko dira, baita jaiegunetan ere.

Aurreko puntuan ezarritako ordutegi-mugak ez zaizkie aplikatuko zerbitzu jarraitua duten geltokiei eta erregaien banaketa-zerbitzuguneetan kokatutako jatetxe-zerbitzuei. Horietan, geltokien eta zerbitzuguneen titularrek zainduko dute instalazioetako komun- eta jatetxe-zerbitzuak garraio profesionaleko zerbitzuak ematen ari diren pertsonentzat bakarrik daudela eskuragarri, irekita jarraitu ahal izango duten sukaldea duten establezimenduetako catering-zerbitzuak, jatetxe-zerbitzuak edo prestatutako janari-saltzaileak barne. Zerbitzu horietan ezin izango da edari alkoholodunik eman, eta ezin izango dute beste zerbitzu-eskari batzuk bete aurreko puntuan zehaztutako ordutegian, halaber gehienez ere hamar laguneko edukierarekin garatu beharko dira.

Debeekatuta dago txokoetan, elkarte gastronomikoetan eta lonjetan inolako jarduerarik egitea, itxita egon behar baitute.

Kultura-jarduerak eta -ikuskizunak.

Jendaurreko kultura-ikuskizunak egin daitezke instalazio propioetan edo kirol-gune itxietan edo beste mota bateko eraikinetan, gehienez ehuneko 50eko edukierarekin eta gehienez 400 pertsonarekin. Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-tartea mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, edo, halakorik ezean, babes fisikorako ordezkotako neurriak.

Aire zabaleko kultura-jarduerak eta ikuskizunak egin ahal izango dira, baimendutako edukieraren ehuneko 50eko gehieneko edukierarekin, 600 pertsona gehienez ere.

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da.

Joko eta apustu-establezimenduak eta lokalak.

Joko- eta apustu-establezimenduek eta -lokalak 23:00ak baino lehen itxi beharko dute, bezeroen irtenaraztea barne eta 23:00etatik aurrera zirkulazioa mugatu baino nahikoa lehenago. Lokala jendearentzat itxita egon beharko da eta ezingo da 06:00ak baino lehen berriro ireki. Neurri horiek asteko egun guztietan aplikatuko dira, baita jaiegunetan ere.

Aire zabalean jarduera fisikoak.

Banaka edo taldeka egin ahal izango da, kontaktu fisikorik gabe eta 6 pertsona gehienez.



Lurreko garraioa.

Edozein motatako eta EAEko hiru lurralde historiko bakoitzeko esparru barneko garraio publikoak, irteteko gehienezko ordutegia 24:00etan izan beharko du. Debeku horretatik salbuetsita dago taxiz edo gidaridun garraio-ibilgailuz lakualdatzea.

Ehiza-jarduera eta arrantza.

Ehiza-jarduera baimenduta dago modalitate guztietan, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen bada. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

Baimenduta dago ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza, modalitate guztietan, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen bada. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

Aire zabaleko erabilera publikoko parkeak eta kirol-eremuak.

Haur-parkeak, kirol-eremuak, patinaje-pistak (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioak jendearentzat irekita egon ahal izango dira, baldin eta horien azaleraren espazio konputagarriko 4 metro koadroko pertsona bateko gehieneko edukiera errespetatzen bada.

Udalei dagokie espazioa antolatzea, bai eta garbitasun eta higie-ne-baldintzak bermatzea ere.

Diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduak.

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena) III. eta IV. multzoetan sailkatutako establezimenduen itxiera ezartzen da, salbuetsi egiten dira beren jarduera I. eta II. multzoetarako erregulazioaren arabera garatzen dutenak eta dagokien udal-baimena badute.

LEHENDAKARIAREN 36/2020 DEKRETUAREN ERANSKINAREN INTERPRETAZIOAK ETA APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

Hilerrriak bisita daitezke?

Bai, bizi den udalerrian edo udalerrri mugakideetan.

Kultura-etxeetan, kirol-eskoletan eta abarretan jorratzen diren jarduerak egin daitezke?

Bai, bizi den udalerrian edo udalerrri mugakidean.

Ezarrিতako orduetatik kanpo, ostalaritzako eta jatetxeetako lokalen barruan jarduerarik egon daiteke?

Bai. Ostalariek establezimenduaren barruan lan egin ahal izango dute lokala prestatzeko, bai 23: 00etatik aurrera, bai 06: 00ak baino lehen. Ezin da etxez etxeko banaketa-zerbitzurik eman, ezta 23: 00etatik aurrera jaso ere.

Entrenatzera joan naiteke bizi naizen udalerritik kanpo edo ondoko udalerritik kanpo?

Ez, kirolari profesionalaren, erdi-profesionalaren, Basque Team-en edo goi-mailaren egiaztagiria badago salbu. Lehiatzeko eta entrenatzeko aukera izango dute, taldearen kide kopurua eta mugikortasuna murriztu gabe.



Zer da kirolari erdi-profesionala?

Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariak dira, baita dagokion Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketetan jarduten direnak ere, guztiak kategoria absolutuan. Atal honetan sartzen dira maila absolutu goreneko herri kirol lehiaketak.

Beste herri bateko kiroldegira joan naiteke kirol-jarduera bat egitera?

Bai, herri mugakidea bada bakarrik.

Beste udalerri edo erkidego batzuetara joan naiteke ehiza- edo arrantza-jarduerak egitera?

Ez. Bi jarduera horiek bizileku duten udalerrian edo mugakideetan bakarrik daude baimenduta.

Taberna batean instalatutako makina batean zutik jolastu al daiteke?

Aulkitxoan eserita egon beharko duzu.